

## **FAKULTATEKO BATZORDE IRAUNKORRAREN AKTA** **(2022ko uztailaren 8a)**

### **Berataratuak eta berataratu ez direnak** **(IOAren 22.2 art.)**

#### **Dekanotza Taldea**

1. Del Valle Loroño, Ana Irene – **Dekanoa**
2. Arlucea Ruiz, Esteban - **Idazkaria**

#### **Administrazio burua**

3. Asensio Espina, Rizitiñe

#### **IRI iraunkorrak**

4. Davila Legeren, Andrés
5. Meso Ayerdi, Koldo
6. Otero Gutiérrez, Beatriz
7. García Ureta, Irene
8. Novo Arbona, Ainhoa

#### **Beste IRI batzuk**

9. Zabalondo Loidi, Beatriz

#### **AZPho langileak**

10. Arandia Urtiaga, Igone

#### **Ikasleak**

11. Ériz Ávila, Lorea (*ez da etorri*)
12. González Cortez, Álvaro Alejandro (*ez da etorri*)

2022ko uztailaren 8an, ostiralean, 11:00etan, UPV/EHUko Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultateko Batzarraren Batzorde Iraunkorra bildu da ohiko deialdian, bigarren deialdian eskatutako quoruma betetzen dela egiaztatu ondoren. Dekano andrea izan da batzordeburua eta alboan adierazitakoak berataratu dira, aztergaien zerrendako puntu hauek lantzeko:

### **1. Aurreko akta irakurri eta onartzea**

Baiesenez onartu dira Batzorde Iraunkorrak 2022ko martxoaren 3an eta 8an (ezohikoa eta premiazkoa) eginiko bilkuraren aktak.

### **2. Dekano andrearen txostena**

Dekano andreak sei arlo nabarmentzen dituen txosten laburra egin du.

Sarbide prozesuei dagokienez, ekainaren 29an amaitu zen ikasleek graduan eta gradu bikoitzean aurretik izena emateko epea. Uztailaren 16an argitaratuko dira lehendabiziko onarpen zerrendak. Hortaz, gaur-gaurkoz ez dugu informazio zehatzik, baina espero da matrikula amaitzen ari den ikasturtekoaren ildo beretik joatea. Prozesuko berritasun gisa adierazi du aurten matrikula aurrez aurre (aurreko urteetan egin den moduan) edo online egin ahal izango dela.

Graduondokoei dagokienez, atzo ireki zen lehen zerrendarako matrikula egiteko epea. Bat dator aurretiko izen ematearen datuekin. Irailaren 15etik aurrera, aurretik izena eman ez dutenek matrikulak egin ahal izango dituzte kupoa bete gabe daukaten masterretan.

22-23 ikasturteko ordutegiari eta irakaskuntza gidei dagokienez, iraulita daude jada, eta ordutegiak atzotik daude ikusgai web orrian.

Ikastegiko 40. urteurreneko ekitaldiei buruz esan du amaitutzat jo direla. Balantzea bikaina izan da ebaluazio aldetik. Eskerrak eman dizkie, benetan hunkituta, parte hartzaile guztiei.

Beste alde batetik, 822/2021 Errege Dekretuak (Unibertsitate ikasketen antolaketa eta kalitatea ziurtatzeko prozedura ezartzen dituen) aipamen bikoitzerako ezartzen dituen eskakizunei buruzko gai batzuk azaldu ditu. Zehazki, Hezkuntza Lankidetzarako Esparru Hitzarmena aipatu

du (22.3 artikulua). Hitzarmen hori gure unibertsitateak egin du, eta 22-23 ikasturtetik aurrera, aipamen hori duten titulazio guztiei eragiten die. Ordura arte UNIBASQ kalitate agentziak aitortutako zigilu duala daukagu; hori baliagarria izango da 21-22 ikasturtean matrikulatutako ikasleek ikasketak amaitu arte.

Ondoren, IOA berrituko dela iragarri du.

Eta, azkenik, adierazi du ikastegiko plan estrategikoa idazketa fasean dagoela.

### 3. Irakasleen plazak

Honako zortzi plaza hauetarako eskaeren aldeko txostena egin da:

- Zuzenbide Publikoa eta Zientzia Historiko Juridikoak eta Pentsamendu Politikoaren Historia Sailak proposatuta:

- 5. eranskina: unibertsitateko katedraren deialdia, hornikuntza berria, elebiduna eta arduraldi osokoa.
- 6. eranskina: osoko plazaren deialdia, hornikuntza berria, elebakarra eta arduraldi osokoa.
- 1. eranskina: unibertsitateko katedraren deialdia, plaza hutsa, elebakarra eta arduraldi osokoa (CUC8/1).
- 1. eranskina: unibertsitateko katedraren deialdia, plaza hutsa, elebakarra eta arduraldi partzialekoa (CUC4/1).

- Ekonomia Aplikatua Sailak proposatuta:

- 11. eranskina: arduraldi osoko atxiki elebidunetik arduraldi osoko agregatu hirueledunera (PAC8L23632).

- Soziologia eta Gizarte Langintza Sailak proposatuta:

- 11. eranskina: arduraldi osoko unibertsitateko katedradun elebakarretik arduraldi osoko atxiki elebidunera (CUC8/13371).
- 5. eranskina: unibertsitateko katedraren deialdia, hornikuntza berria, elebakarra eta arduraldi osokoa.

- Kazetaritza Sailak proposatuta:

- 11. eranskina: arduraldi osoko atxiki elebidunetik arduraldi osoko agregatu hirueledunera (PAC8L2-D00336-14).

### 4. Galde-eskeak

Ez dago halakorik.

Eta lantzeko beste gairik ez dagoenez, dekanok andreak Batzordearen bilera amaitutzat jo du 11:35ean, eta nik, idazkaria naizen aldetik, horren fede ematen du Leioan, 2022ko uztailaren 8an.

Dekanoak O.E.  
**Ana Irene del Valle**

Idazkari akademikoa  
**Esteban Arlucea**